IRAILAK
12•13•14•15•16•
EGIA
PORRONTXOJAIAK '90

AGURRA

Beste urte bat eta dagoeneko bederatzi dira gure Porrontxo jaiek betetzen dituztenak.

Bederatzi urte hauetan gure Porrontxoek gertaera asko ikusi dituzte, baita zenbait aldaketa ere, baina hona datozkigu berriro betiko 'gogo eta ilusioarekin eta beste urteetan baino koadrila gehiagoz osatuak.

Bederatzi urtez jaietan, bederatzi urtez ideia zoro eta polit hau aurrera eramaten, baina...hamaika urtez Egia behar bezalako auzo bat lortzen saiatzen, hamaika urtez egiatarrok beren ahotsa belarri itxi batzuengana zuzentzen, hamaika urtez ahotsa urratuago baina ez mutu. Egun hauetan auzoak dituen arazoak alde batean utziko baditugu ere, urte osoan zehar elkarteen koordinakundeak egindako lana ez dugu ahaztuko.

Aurtengo jaiak inoiz baino herrikoiago eta alaitsuagoak gertatuko direlakoan gaude, eguneroko lanaz eta gizarteak ondo pasatzeko eskeintzen digun eraz nazkatuak gaudelako; guri kalean ibiltzea gustatzen zaigu eta ez besteak nola dabiltzan ikustea, guri nor garen eta non gauden ahaztu gabe ondo pasatzea gustatzen zaigu eta ez inguruko arazoak ahaztuta gure buruak drogaz betetzea.

Aurten Porrontxo jaiek Isidoro eta Koldori ongi etorria ematen dieten bezala, espero dezagun hurrengo urteek Montxo, Joxean, Oskar eta Portel ere ematea. Beraientzat gure irripar goxoena eta era berean "Gora Porrontxo Jaiak" altuena.

Eta noski, Porrontxo jaiak kuartelean pasatzen dituzten makina bat gazte ere badugu gure auzoan, beraientzat oroimen berezi bat.

Bai, jai hauetan nekatuko gara, astelehenean lanera erdi lo joango gara, ikastera, etxeko lanak egitera...baina egun hauetan gure gorputzak beharrezko duen zerbait lortuko du, aurrera jarraitzeko indar berezi hori, datorren urtean hamargarren urteurrena bereziki ospatzeko.

GORA PORRONTXO JAIAK!

JAI-BATZORDEA

PORRONTXO JAIAK 90

EGITARAUA

ASTEAZKENA 12

19,30etan: Buruhandiak eta Erraldoiak Tirri-Tarra txarangarekin.
20,30etan: Suziri eta jaien hasiera.
20,30etan: Koadrilen jaitsiera Tirri-Tarra eta Porrontxo txarangekin.
23,00etan: Dantzaldia Mintxoriak taldearekin.
23,30etan: Txaranga Txalaparta.

OSTEGUNA 13

12,30etan: Dultzaineroak.
18,00etan: Haur koadrilen jaitsiera hankapaluekin eta txaranga Basalotsati.
19,30etan: Buruhandiak eta Erraldoiak.
20,00etan: Koadrilentzako jokoak (Pin-pon, Sator-futbolaren semifinala eta Musen finalak).
20,00etan: Txaranga Jatorrenak.
20,30etan: Txaranga Donosti-Alai.
21,00etan: Haur Dantzaldia Zuentzat taldearekin (Plaza Berrin).
23,00etan: Dantzaldia Trakets taldearekin.
23,30etan: Txaranga Nekaezinak.

OSTIRALA 14

12,00etan: Haur-Antzerkia.
12,30etan: Trikitilariak.
19,00etan: Buruhandiak eta Erraldoiak Jatorrenak txarangarekin.
19,30etan: Kronoeskalada Karmengo Ama kalean gora.
20,00etan: Koadrilentzako jokoak (Sketxak, Porrontxo Olinpiaden finalak eta Sator-futbolaren finalak)
20,30etan: Txaranga Nekaezinak.
21,00etan: Kantaldia: Erramun Martinikorena
23,00etan: Txaranga.
24,00etan: Dantzaldia Arkaitz taldearekin.
01,00etan: Banana dantza jokoa.
01,30etan: Txaranga Nekaezinak.
04,00etan: Txaranga Jatorrenak.
05,00etan: Bigantxak Tejeria Kalean.

ARUNBATA 15 *PRESO ETA ERREFUXIATUEN EGUNA*

10,00etan: Diana Basalotsati txarangarekin.
10,30etan: Haurrentzako txokolate jana Gladys-enean.
11,00etan: Haur jokoak Gladys-enea parkean.
12,00etan: Batel-txapelketaren kanporaketak Urumean.
16,30etan: Koadrilentzako jokoak (goitiberak, arraultz borroka eta asto gaineko gynkana).
16,30etan: Txaranga Donosti-Alai.
20,00etan: Koadrilen kale-jira Porrontxo eta Tirri-Tarra txarangekin.
22,00etan: Koadrilen afaria Tejeria kalean.
22,00etan: Txaranga Jatorrenak.
24,00etan: Presoen aldeko Kalejira.
01,00etan: Dantzaldia Almen taldearekin.
01,30etan: Zubietako Ttuntturroak.
01,30etan: Txaranga.
04,30etan: Txaranga Donosti-Alai.
05,00etan: Baratxuri zopa.
06,00etan: Bigantxak Tejerian.

IGANDEA 16

09,00etan: Diana txistulariekin.
11,00etan: Pilota-txapelketaren finalak Atotxako frontoian.
11,30etan: Eskubaloi-txapelketaren finalak.
12,00etan: Jotak Plaza Berrin. Escuela Jotas de Andosilla.
12,00etan: Txaranga Jatorrenak.
13,30etan: Batel-txapelketaren finalak Urumean.
16,30etan: Koadrilentzako Herri kirolak.
17,00etan: Pailasoak: Mintxo, Montxo eta Ramontxo.
18,00etan: Erromeria: • Trebeska Dantza taldea • Sardin jana trikitilariekin • Txanbela taldea.
20,00etan: Txaranga Donosti-Alai.
22,30etan: Jaien Amaiera.

❖



OHARRA: Jaietan auzokideak animatzen ditugu terrazak apain ditzaten, ikurrina, kolorezko globoekin edo nahi duten bezala.

NOTA: Animamos a los vecinos a que colaboren en fiestas ADORNANDO las terrazas con la ikurriña, con globos de colores o como mejor se les ocurra.